

## KULTURA

# Elurraren 'beroak' goxatuta atera zen Oñatiko publikoa Santa Ana aretotik

Asko gustatu zitzaion jendeari Mikel Laboa ardatz duen lana, Mireia Gabilondok zuzendua

JULEN IRIONDO | OÑATI

Egubakoitz iluntzeko giro desatsegina, are hotzagoaren ondorio ohi den elurrak epeldu zuen Oñatin. Epel ez, asebate utzi zituen Tanttakaren *Zazpi aldiz elur* lanak Santa Anara joandakoak. Aretoaren hiru laurdenak bete zituztenek obrak iraun zuen artean jarritako atentzioa, amaieran jotako txaloak eta galdekatutakoengandik jasotako iritziak, horren froga.

Bernardo Atxagak Emily Dickinsonen poesiarekin lotuta, gero obra gorpuztu zedin aitzakia bilakatu ziren umearen esanekin hasten da funtzioa. Mikel Laboa hil zenean, hiltzeko, egun denak berdina ez direla esanez ume hark egindako baieztapena berresten duen olerkia, poeta estatubatuarrena, errezeitzen du Gabilondok. Olerkiak deskribatzen duen udaberriko egun ederra egoki baillizateke hiltzeko, Laboa hil zeneko "elur isil" neguko eguna bezala.

Eta horrela, batzuetan inplizituagoak eta beste batzuetan esplizituagoak direnen arteko loturak eginez igarotzen da lana, errezeitaldia, antzezpenak, pasadizoak, proiektzioak... elkarrizkiaz, Laboak denon eskura utzi zituen letra eta doinuak, oihal-puntadetan legez, agertu eta ezkututzen den hari gisa erabiliz.

Musikari, abeslari eta antzezleek egiten dute jostun. Denak jostun; lana ez baita bakoitzak ohikoa duen diziplinatik adierazitakoaren batura; abeslariak egiten baitu antzezle ere, musikariak kontalari bezala, lanak dituen zazpi ataletan.



Maria Berasarte abesten, gitarra doinuek lagunduta. | IMANOL SORIANO

Eta hari, orratz eta joste lan horien emaitza, iristen zaizkio publikoari Mikel Laboaren izatearen hainbat printza, batzuk beste batzuk baino ezagunago: animalia jokaeradun *basaume* baten istorioaren bitartez azalduz psikiatra haren bilakaera, adibidez, "eroekin" lan eginez ohar-tu ei zelako gero hainbat kantuz iradokiko zuen "beste mundu" hartaz; edo zine komikorako

zuen zaletasunaren berri emanaz garai bateko film mutua Iñaki Salvadorrek elkarri maisuki eta irudien arabera lotutako Laboaren doinu-pasartez jantziz; edo Laboaren kezken berri emanaz euren erleen etxean haientzat tximeleta kaltegarria sartu izanaren arduraz dauden bi erlezain irudikatuz...

Hurrengo, apirilean egingo du Arrasaten *Zazpi aldiz elur*.



**MARIAN LIZARRALDE**  
OÑATI

"Oso gustukoa egin zait; fina iruditu zait. Oso esateko era ona zeukan mutilak, eta kantaria ere zoragarria. Denbora aldetik ere oso neurrikoa, aspertu gabe zapore goxoa uzteko".



**ROBERTO IZAGIRRE**  
BERGARA

"Oso polita. Malenkoniatsua pixka bat, baina asko gustatu zait. Niretzat oso inportanteak diren bi gauza ditu, elurra eta Mikelen kantuak. Korapilotxo utzi dit. Etxera joatean azken diskoa jarriko dut".



**BEGOÑA USANDIZAGA**  
OÑATI

"Oso ona iruditu zait. Ze irudimena! Bera zen oso originala, oso hunkigarria; eta Laboa zena azaldu da gaur. Eta ze ona iruditu zaidan basoko mutilaren pertsonaia! Eta besteak ere bai; dena!".



Mireia Gabilondo eta Iñaki Rikarte aktoreak; atzean, Angel Unzu. | I.S.

## 'Etxeko' aurrenekoa, arrakastatsu

Agertokietan bi aste zeramatzala iritsi zen Mireia Gabilondoren lana Oñatiko Santa Anara. Estreinakoa zuen bere jaioterri Bergara ondoko antzoki batean, eta Gabilondo gertuko duen hainbat ere batu ziren egubakoitzekoan: "Ukituta zeuden", zioen artistak, ikaskide izandako antzuolar kuadrillarekin solasean jardun ondoren. Txalo zaparrada benetakoa jo zuten ikusleek obra amaituta: Gabilondok berak aitortu zuen hala sentitu zuela.